# Xedapen Orokorrak

## ESTATUKO BURUTZA

### Zk-4046

812/2001 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 13koa, Juan José Ibarreche Marcuartu jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatzen duena.

Konstituzioaren 152.1 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 33.1. artikuluan xedatzen denaren indarrez,

Juan Jose Ibarreche Marcuartu jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatzen dut, 2001eko uztailaren 11 eta 12an egindako osoko bilkuran Eusko Legebiltzarrak hala hautatu duelako.

Madrilen, 2001eko uztailaren 13an.

JUAN CARLOS R.

Gobernuko lehendakaria,
JOSÉ MARÍA AZNAR LÓPEZ.

# Disposiciones Generales

## JEFATURA DEL ESTADO

### N°-4046

REAL DECRETO 812/2001, de 13 de julio, por el que se nombra Presidente del Gobierno Vasco a don Juan José Ibarreche Marcuartu.

En virtud de lo dispuesto en el articulo 152.1 de la Constitución y en el artículo 33.1 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco,

Vengo a nombrar Presidente del Gobierno Vasco a don Juan José Ibarreche Marcuartu, designado por el Parlamento Vasco en la sesión plenaria celebrada los días 11 y 12 de julio de 2001.

Dado en Madrid, a 13 de julio de 2001.

JUAN CARLOS R.

El Presidente del Gobierno,
JOSE MÁRIA AZNAR LÓPEZ.

# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-4047

EBAZPENA, 2001eko ekainaren 20koa, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Energia zuzendariarena, «Ermuko sarea-1. zabalkuntza 1 zk.ko Addendum-erako 1 zk.ko aldaketa» izeneko proiektuko etxebizitza eta merkataritza gas naturalaz hornitzeko gasbidearen instalazioa herri onurakotzat onartzeko eskaerari buruzkoa».

Erref.: GUD-IV-Eru CG-B-99/36 GH/AOK

Pilar Urruticoechea Uriarte andreak, Euskadiko Gas Baltzua, S.A. (NATURGAS) enpresaren izen eta ordezkaritzan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ermua udalerria etxebizitza eta merkataritzarako gas naturalaz hornitzeko instalazioaren banaketa-sarea, «Ermuko sarea-1. zabalkuntza 1 zk.ko Addendum-erako 1. zk.ko aldaketa» izenekoa, onura publikokotzat onartzeko eskaria aurkeztu du 2001-01-24an.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-4047

RESOLUCIÓN de 20 de junio de 2001, del Director de Energía, en relación con la solicitud de declaración de utilidad publica de la instalación de un gasoducto de distribución de gas natural para usos domésticos y comerciales correspondiente al proyecto denominado «Red de Ermua-1.ª ampliación modificado n.º 1 al Addendum n.º 1».

Ref.ª: GUD-IV-Eru CG-B-99/36 GH/AOK

D.ª Pilar Urruticoechea Uriarte, en nombre y representación de la Sociedad de Gas de Euskadi, S.A. (NATURGAS), ha solicitado con fecha 24.01.01 la declaración de utilidad pública de una red de distribución de gas natural para usos domésticos y comerciales en el municipio de Ermua, Territorio Histórico de Bizkaia, denominada «Red de Ermua-1.ª ampliación modificado n.º 1 al Addendum n.º 1».